# BIHAR

KONGRESUA · AGRAW · ATY · HUI TAUMATA

**Hizkuntzetatik jalgitzen ari den mundua**

# PRENTSA DOSIERRA

ANTOLATZAILEAK: garabide · SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA · TAUPA Euskaltzaleen mugimendua · PLAZARA Euskara, erdigunera [Faites] une place à l'euskara

# KONGRESUARI BURUZ

2026ko irailaren 23tik 26ra, Euskal Herriak etxea emango dio Biziberritzen ari diren hizkuntza komunitate gutxituen Nazioarteko Kongresuari. **Hizkuntzetatik jalgitzen ari den mundua** leloa daraman kongresuak, **munduko hizkuntza komunitate ezberdinak biltzea** dauka helburutzat, **biziberritze-diskurtsoen inguruan gogoeta egin** eta hizkuntzen biziberritzearen inguruko diskurtsoak **mundu mailan** eta modu eraldatzailean **kokatzeko**.

## HIZKUNTZETATIK JALGITZEN ARI DEN MUNDUA

### EZ DA KONGRESU SOIL BAT, PROZESU BATEN PARTE BAIZIK

1

## DIAGNOSTIKOA

Guztira, munduko bost kontinenteetan zehar kokaturiko **70 hizkuntza komunitate inguruetako diskurtsoak aztertu dira** ikuspuntu intersekzional batetik. Hauek dira horietako batzuk: aimara, bubia, kitxua, kurduera, maoria, santalia, sencotena, nquiyaampaa, tonga, balinesera, frisiera, dumia, katalana, hawaiiera, maasaia, maputxea, besteak beste.
Ikerketan metodo kualitatiboak lehenetsi dira elkarrizketa sakonak zein eztabaida-taldeak eginez. Osagarri gisa, era berean, erakundeek eta hiztun-komunitateek sortutako dokumentu-kopuru esanguratsua aztertu da.

2

## SOZIALIZAZIOA

Diagnostikoko ekarpenak oinarri hartuta, arreta berezia jarriko diogu **munduko hizkuntza komunitateekin harreman bidezko eta orekatuak sortzeari, eta hizkuntza komunitateen barne-aniztasuna aitortzeari.** Gaitasun kolektiboak indartzea izan da helburua, tokian tokiko zein nazioarteko testuinguruetan diskurtso eraldatzaile, inklusibo eta intersekzionalak sortu ahal izateko.
Guztira, hogei lan-saio eta mintegi bateratua antolatu dira Euskal Herri osoan zehar, eta **100 eragile baino gehiago aritu dira parte hartzen.** Eragile horiek hainbat arlo sozialetakoak izan dira: euskalgintza, feminismoa, ekologismoa, gazte mugimenduak, migranteen elkartasun kolektiboak, LGTBIQ+ mugimendua, arrazakeriaren aurkakoa eta lankidetza, besteak beste.

# 3 KONGRESUA

**Irailaren 23tik 26ra,** lau egunez, mundu mailako adituak, aktibistak eta artistak bilduko dira **Bilbo, Irun eta Hendaia artean.** Eta, aurreko bi faseetan (diagnostikoan eta sozializazioan) bildutako irakaspen, diskurtso eta esperientziak erdigunera ekarriko dira egitarau oparo baten bidez, hitzaldi, mahai-inguru, tailer eta eskaintza artistiko-kulturalak uztartuz.

**“Gaitasun kolektiboak indartzea da helburua, tokian tokiko zein nazioarteko testuinguruetan diskurtso eraldatzaile, inklusibo eta intersekzionalak partekatzeko”**



**45 aditu** eta eragile horiei esker, nolabait, munduari buelta emango diogu, eta **35 hizkuntza-komunitate** inguru elkartuko ditugu. Gertuenetik hasita, euskaldunak, katalanak, galesak izango ditugu, baita munduko hainbat txokotatik iritsitako ahotsak ere:

Afrikatik, besteak beste, **khoikhoi-ak** eta **amazigak** izango ditugu. Asiatik, **kurduak** eta **torwali-ak**; Ozeaniatik, **maoriak** eta Australiako **aborigenak**; eta Amerikatik, **kitxuak**, **maputxeak**, Haitiko **kreoleradunak** eta Kanadako **innu-ak**, beste askoren artean.

# GAIAK

1

Zergatik da premiazkoa kontakizun berriak edo berrituak bilatzea, aktibatzea eta hedatzea?

2

Diskurtso kulturalak eta identitate-atxikimenduaren eraikuntza sinbolikoa

3

Hizkuntza, identitatea eta ezagutza komunitarioa etorkizuneko kontakizun berritzaileetan

4 **Hizkuntzak erresistentzian: agentzia, komunitate-aktibazioa eta etorkizuneko narrazioak hizkuntza-biziberritzeko**

5 **Posible al da hizkuntza eta kultura biziberritzen ari diren komunitateetan mundu mailako narratiba edo irudideria partekatu bat artikulatzea?**

6 **Teknologiaren eta adimen artifizialaren ekarpenak hizkuntzen biziberritze prozesuetan**

**eta askoz gehiago...**

# NON ETA NOIZ?

| | |
|---|---|
| IRA 23 | **Euskalduna Jauregia · Bilbo**<br>14:30 - 19:00<br>Abandoibarra etorbidea, 4, Abando, Bilbo |
| IRA 24 | **FICOBA · Irun**<br>08:30 - 17:00<br>Iparralde Hiribidea 43, Irun |
| IRA 25 | **FICOBA · Irun**<br>08:15 - 17:00<br>Iparralde Hiribidea 43, Irun |
| IRA 26 | **Borderline Fabrika · Hendaia**<br>11:00 - 12:00<br>64 Bd du Général de Gaulle, Hendaia |

**Arratsaldero ekitaldi kultural eta artistikoak egongo dira**

Informazio gehiago **bihar.eus/kongresua**

BIHAR
KONGRESUA · AGRAW · ATY · HUI TAUMATA

garabide bidegara · SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA · TAUPA · PLAZARA Euskara, erdigunera

# Parte-hartzaileak


YAZMIN NOVELO


ZURBAIR TORWALI


XAN AIRE


GANESH DEVY


URTZI URRUTIKOETXEA



TOROGA BREDA


TALENT MUDENDA


ONINTZA OLAIZOLA


TAHIR BAYKUSAK


SOPHIA SMITH


SERGIO MARINAO


JASONE MENDIZABAL


PAOLINA VERCOUTERE


RAHERA COWIE


PAULA LAITA


NABRAJ LAMA

BIHAR KONGRESUA · AGRAW · ATY · HUI TAUMATA

# Parte-hartzaileak


NAILEJILEJI TIPAP


MUSTAPHA EL ADAK


MÓNICA PEREÑA


AINHOA PARDINA


MIRIAM VIVIANA GONZÁLEZ


MICHEL DEGRAFF


MARÍA IZQUIERDO


BARBARA FILION


KSENIIA BOLSHAKOVA


LORNA WILLIAMS


KEKOA LLOYD


ANNA BELEW


JUSTYNA OLKO


JON SARASUA


JELISAVA DOBOVSEK


KHALED WHALI

# Parte-hartzaileak


ELIAS CAUREY


JEAN BAPTISTE DJERIDE


ELIN JONES


CLAYTON CRUSE


BELEN URANGA


ARITZ IBÁÑEZ


DARREN FLAVELLE


AYSA ZAYZAOUI


ANDICHI CHAHID


ALBERT BADOSA

# Hainbat testigantzen aukera:

komunikazioa@bihar.eus

## ZERGATIK DA PREMIAZKOA KONTAKIZUN BERRIAK EDO BERRITUAK BILATZEA, AKTIBATZEA ETA HEDATZEA?



**ALBERT BADOSA**
**KATALAN HIZTUN-KOMUNITATEA**
Bartzelonako Unibertsitatean trebatutako hizkuntzalaria da, hizkuntza-aniztasunean, biziberritzean eta dokumentazioan espezializatua. HIGA Elkartearen bidez hizkuntza-aktibismoan dihardu, eta Malieng zein Vietnamgo komunitateekin lan egiten du. Kataluniako oinordetzako hizkuntzen soziolinguistika ere ikertzen du.

## DISKURTSO KULTURALAK ETA IDENTITATE-ATXIKIMENDUAREN ERAIKUNTZA SINBOLIKOA



**RAHERA COWIE**
**TE REO MAORIA, AOTEAROAKOA HIZTUN-KOMUNITATEA**
Rahera Cowie (Ngāi Tahu, Ngā Puhi, Ngāti Kahu) Maori Hezkuntzako irakaslea eta ehulea da. Maori hizkuntzaren eta ezagutza indigenen biziberritzean espezializatuta dago, eta hizkuntza-ikaskuntza kultura-praktikekin uztartzen duten tailerrak dinamizatzen ditu. Bere ikerketak ehungintzak maori hizkuntzaren eta kulturaren biziberritzean duen eginkizuna aztertzen du.

## HIZKUNTZA, IDENTITATEA ETA EZAGUTZA KOMUNITARIOA ETORKIZUNEKO KONTAKIZUN BERRITZAILEETAN



**PAOLINA VERCOUTERE**
**ECUADORREKO KICHWA HIZTUN-KOMUNITATEA**
Sisariy-ko hizkuntza-eskubideen aldeko ekintzailea, herri-hauteskunde bidez hautatutako agintaria
Gizarte Garapenean ingeniaria, genero eta politika publikoetan masterra
Gobernadore ohia eta udal-zinegotzi ohia.

BIHAR
KONGRESUA · AGRAW · ATY · HUI TAUMATA

# Hainbat testigantza aukera:

komunikazioa@bihar.eus

## TEKNOLOGIAREN ETA ADIMEN ARTIFIZIALAREN EKARPENAK HIZKUNTZEN BIZIBERRITZE PROZESUETAN



**SOPHIA SMITH**
**PIAŚINTEIN, INGELESA, ITALIERA HIZTUN-KOMUNITATEA**

How To Kill A Language: Power, Resistance and the Race to Save Our Words liburuaren egilea.
Hizkuntzei buruz idazten duen kazetaria; sare sozialetan milioi bat jarraitzailerentzat hizkuntzalaritzari buruzko azalpen-edukiak sortzen ditu. Hizkuntza Modernoetan graduatua, eta nazioarteko kazetaritzan hamarkada bateko esperientzia du.

## POSIBLE AL DA HIZKUNTZA- ETA KULTURA-BIZIBERRITZE KOMUNITATEEN ARTEAN MUNDU MAILAKO NARRATIBA EDO IRUDITERIA PARTEKATU BAT ARTIKULATZEA?



**MICHEL DEGRAFF**
**HAITIKO KREOLERA (KREYÒL) HIZTUN-KOMUNITATEA**

Hizkuntzek deskolonizazioan eta askapenean duten zeregina aztertzen du, hizkuntza-hierarkiak eta haiek sortzen dituzten desberdintasunak zalantzan jarriz. Ama-hizkuntzak ez direla oztopoak, baizik eta ezagutza, duintasuna eta ahalduntzea sustatzeko baliabideak defendatzen ditu, eta eragile desberdinen arteko elkarlana proposatzen du gizarte bidezkoago eta inklusiboagoak eraikitzeko.

## HIZKUNTZAK ERRESISTENTZIAN: AGENTZIA, KOMUNITATE-AKTIBAZIOA ETA ETORKIZUNEKO NARRAZIOAK HIZKUNTZA-BIZIBERRITZERAKO



**TAHIR BAYKUSAK**
**KURDU HIZTUN-KOMUNITATEA**

Tahir Baykuşak kurduera hizkuntzako irakasle eta ikertzailea da, eta Istanbulgo Institutu Kurduan lan egin du. XX. mendearen hasierako Kurdistango Mugimendu Nazionalaren diskurtsoa aztertu zuen master-tesian. Bere hitzaldiak hizkuntzak erresistentzian eta hizkuntza-biziberritzean duen zeregina jorratuko du.

# Informazio gehiago nahi izanez gero edo elkarrizketa bat lotzeko, jarri gurekin harremanetan:

komunikazioa@bihar.eus

www.bihar.eus

ANTOLATZAILEAK: TAUPA Euskaltzaleen mugimendua · garabide bidegan · PLAZARA Euskara, erdigunera [Faites] une place à l'euskara · SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN Y SOLIDARIDAD

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Beasaingo Udala

Bilbao

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

GIPUZKOA
Foru Aldundia

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

euskarabidea

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

# BIHAR

KONGRESUA · AGRAW · ATY · HUI TAUMATA

**www.bihar.eus**